

BALIO PROPOSAMENA

Canvasari hasiera emateko, lehenik eta behin, zein izango zen gure balio proposamena pentsatu genuen. Hau da, zer eskaintzen dugu guk besteek eskaintzen ez dutena? Edo gure bezeroek duten zein arazori ematen diogu irtenbidea?

Galdera honek hainbat erantzun ditu. Hasteko, gaur egun argi eta garbi dugu ingurumena oso kutsatuta dagoela, nahiz eta biztanleria gero eta kontzientziagotuta egon, oraindik ere aurrerapausu handiak eman beharko litzatezke. Guk, arazo horri konponbidea emate aldera, ingurumena zaintzea erabaki dugu, produktu berrerabilgarri eta aldi berean naturalak (plastikorik gabekoak) eskainiz, eta horrela kutsaduraren arazoaren larritasuna ahultzeko.

Gainera, ingurumenari mesede egiteaz batera, emakumeei ere egiten diegu, gure produktu lasaigarri eta berezien bitartez. Kasu honetan ere, guk, emakume garen aldetik, badakigu hilerokoa zelako arazoa izan ahal den emakume batentzat. Horregatik merkaturatuko ditugu produktu lasaigarri eta bereziak emakumeen hileko zorigaiztoko egunak zerbait atseginagoak izateko.

Azkenik, gure gorputzaren inguruko informazio eza dagoela eta, hitzaldiak eskainiko genituzke arazo hori konpontze aldera.

Mundu hau aztertu ondoren, ikusi dugu ez dagoela denda edo enpresarik hilerokoa sakonki lantzen duena, edo horren inguruan jarduten duena. Beraz, gure proiektuaren berritasuna hauxe izango litzateke, bakarrak garelako hilerokoa espezifikoki lantzen.

Gure produktuak nabarmentzen dituzten ezaugarriak prezioa, kalitatea eta segurtasuna dira, besteak beste. Prezioari erreparatuz gero, denontzat eskuragarriak izango dira, hau da, ez dira oso prezio altuak izango. Eta aurretik esan bezala, gure helburuetako bat emakumeei laguntzea denez, gure gorputzei ongi egokitzen zaizkien kalitate oso oneko eta segurtasun handiko produktuak izango dira gureak.

Hau izango litzateke gure katalogoa:



Bragas flujo moderado



Gaueko kompresa berrerabilgarriak



Kotoizko "salvaslip" berrerabilgarriak



Kotoizko "salvaslip" bererabilgarriak (tanga)



Txokolate lasaigarria



OVA





Hileroko kopa



Bragas flujo abundante



Konpresa berrerabilgarriak



Zaku termikoa



Nezeserra



Tampax